elorrio

# EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA 2013-2017

**Plan hau Elorrioko Udalak Elhuyar Aholkularitzari egindako eskaeraren emaitza da, hain zuzen ere, Elorrioko Euskara Biziberritzeko Plana (2013-2017) herritarrekin batera landu eta diseinatzeko eskaeraren ondorioa. Hartara, hainbat herritarrekin eta eragilerekin batera landutako diagnostikoan jasotakoari erantzun nahi dio plan honek; eta, era berean, elkarlanean zehaztutako lan-ildoak jaso.**

ELHUYAR
aholkularitza

# SARRERA

## Planaren diseinua

Plan hau Elorrioko Udalak Elhuyar Aholkularitzari egindako eskaeraren emaitza da, Elorrioko Euskara Biziberritzeko Plana (2013-2017) herritarrekin landu eta diseinatzeko eskaeraren emaitza, hain zuzen ere. Horrela, herritarrekin batera landutako diagnostikoan jasotakoari erantzun nahi dio plan honek.

## Markoa

Eusko Legebiltzarrak 1999. urtean onartutako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren oinarrituta dago plan hau, eta Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak plan hori toki entitateetara egokitzeko egindako markoaren baitan. Nolanahi ere, 2009an Euskara 21 gogoeta prozesuaren emaitzetatik Euskararen Aholku Batzordeak 2012an onartutako Euskara Sustatzeko Ekintza Planean (ESEP) jasotako zenbait kontzeptu eta helburu ere jaso dira. Hain zuzen ere, helburu estrategikoen banaketa berritu da, eta ekintza-neurrien proposamenei egokitzapenak egin zaizkie, eta zehar-lerroen lanketa proposatzen da. Hain zuzen ere zehar-lerroetan gainerako esparruak elikatzeko bestelako jarduerak biltzen dira, hizkuntza plangintza integral batek kontuak izan behar dituenak.

Guztira, bederatzi lan-esparru jasotzen ditu plan honek: EBPNk jasotzen dituen 10 esparruak, Administrazioko esparrua salbu, azken hori Udalak Erabilera Planaren bitartez lantzen du eta.

## Indarraldia

Plan honen indarraldia 5 urtekoa izango da, 2013tik 2017ra, biak barne. Hain zuzen ere, indarraldia bat dator administrazioko Erabilera Planak bete beharreko V. plangintza-aldiko epeekin.

## Diagnostikoa

Diagnostikoa IRATI aplikazioan jasotako galdetegiari erantzuten dio, eta bi datu mota jasotzen du: datu kuantitatiboak eta datu kualitatiboak. Datu kuantitatiboak iturri ofizialetatik jasotako datuak dira; datu kualitatiboak, aldiz, herritarrekin eta herriko zenbait eragilerekin batera landurako saioen bidez jaso dira.

Plan honetan jasotako diagnostikoa eta diseinua egiteko prozesuaren berri aparteko txosten batean jaso da. Diagnostikoa amaieran jaso da, eranskin gisa.

## Garrantzia

Helburuen garrantzi-maila bost koloreen bitartez adierazi da. Helburuen garrantzia Aholku Batzordeak erabaki zuen abenduko bileran.

| |
|---|
| ■ txikia |
| ■ |
| ■ ertaina |
| ■ |
| ■ handia |

## Irati aplikazioa

Hemen jasotako dena Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak prestatutako IRATI aplikaziora moldatu da eta bertan txertatuta dago, dagokion jarraipen- eta adierazle-sistema uztarturik duelarik.

# Euskara biziberritzeko Plan Nagusia, Elorrio (2013-2017)

| **EBPNren helburu orokorra** |
|---|
| Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikarako neurriak erabakitzea eta bultzatzea da. |
| **Elorrioko Euskararen Plan Estrategikoaren helburua, 2013-2017 epealdirako** |
| Elorrioko euskaldunek euskara gehiago baloratzea eta euskararen erabilera areagotzea esparru guztietan. |

| **Helburu estrategikoak (ESEP)** | **Esparruak**[1] | **Zehar-lerroak**<br>**Motibazioa eta zabalkundea** |
|---|---|---|
| *Euskararen jabekuntza* | 1. Familia transmisioa | **Barruko proiekzioa** Euskaltzaleen antolaketa sustatzea eta sarea eratzea<br>**Sentsibilizazioa eta motibazioa** Euskaldunen lidergoa<br>**Barruko proiekzioa** Euskararen prestigioa eta erabilera |
| | 2. Euskalduntzea-prestakuntza | |
| | 3. Irakaskuntza | |
| *Euskararen erabilera* | 5. Lan mundua | |
| | 6. Aisia | |
| | 7. Kirola | |
| *Euskararen elikadura* | 8. Kulturgintza | |
| | 9. Komunikabideak | |
| | 10. Teknologia berriak | |

[1] 4. esparrua ADMINISTRAZIOA da. Esparru horren lanketa berezia egiten da ERABILERA PLANAren bitartez.

## 1. Familia bidezko transmisioa

<table>
<tr><th>Ahulgunea</th><th>Proposamenak</th></tr>
<tr><td>• Umeei euskaraz, baina nagusiei ez, eta umerik ez dagoenean erdara da harreman hizkuntza<br>• Euskalduna izan arren, erdaraz nagusiki.<br>• Erdaldunaren eskubideak lehenetsi familia hizkuntzan. Euskaldunaren eskubideak?<br>• Gurasoen artean erdaraz (familia barruan, familia ezberdinen artean).<br>• Guraso etorkinen lan-baldintzak.</td><td>• Haur etorkinentzako eskolaz kanpoko saioak, modu ludiko batean euskara ikasteko.<br>• Haur etorkinekin lan egiteko baliabideak.<br>• Guraso-lagun.<br>• TELP ikastaroak.<br>• Norbanakotik hasi behar da.<br>• Euskarazko harremanak sortzeko eta lantzeko ekimen erakargarriak.<br>• Hezkuntzan aukerak aztertu: guraso euskaldunak dituzten haurren arteko harremanak indartu.</td></tr>
<tr><th colspan="2">Helburua (IRATI)</th></tr>
<tr><td colspan="2">• Euskararen erabilera handitu etxeko esparruan, eta transmisioa ziurtatu familia kideen arteko hizkuntza izan dadin.</td></tr>
<tr><th colspan="2">Helburu zehatzak</th></tr>
<tr><td colspan="2">• Guraso euskaldunen arteko euskarazko hizkuntza-ohiturak sustatzea.<br>• Gurasoak kontzientziatzea euren hizkuntza ohiturek nolako eragina duten euren seme-alabengan: desprestigiatze lanaz jabetzea.<br>• Seme-alabak familiako hizkuntza ohituren aldaketen eragile bihurtzea.</td></tr>
</table>

| Ekintza (IRATI) | Estrategia |
|---|---|
| 1.1.1.2. Haur jaio berrien gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako bildumak igorri: ipuinak, kantuak, euskarazko gela apaingarriak, euskal izendegia...<br>➡ Eman giltza transmisio kanpaina: haur jaioberrien gurasoei oparia eta sentsibilizazio gutuna. | Sentsibilizazioa |
| | Eraginpekoak |
| | Haur jaioberrien gurasoak |
| | Arduradunak |
| | Udal erregistroko arduraduna |
| | Garrantzia |
| | Ertaina |

| Ekintza (IRATI) | Estrategia |
|---|---|
| 1.1.1.3.Gurasoengan eragin euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezen.<br>➡ Gurasoei zuzendutako kanpaina: mezu argiak eta errealitatea erakutsi (publizitate kanpaina “Zuen artean ere eukaraz!” modukoak, hitzaldiak, ikastetxeen bidez lanketa, guraso elkarteen bidezko lanketa…) | Sentsibilizazioa/ekitaldiak antolatu |
| | Eraginpekoak |
| | Gurasoak |
| | Arduradunak |
| | Guraso Elkarteak<br>Udala |
| | Garrantzia |
| | Handia |

<table>
<tr><th>Ekintza</th><th>Estrategia</th></tr>
<tr><td rowspan="7">1.1.1.1. Guraso eta aitona-amonengan eragin, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko.<br><br>➡ Aitona-amonekin batera belaunaldien arteko harremana landu eta euskarazko harremanak landu. Familiako belaunaldi ezberdinen arteko transmisio hizkuntza landu.</td><td>Sentsibilizazioa/ekitaldiak antolatu</td></tr>
<tr><td>Eraginpekoak</td></tr>
<tr><td>Haurrak eta aitona-amonak</td></tr>
<tr><td>Arduradunak</td></tr>
<tr><td>Ikastetxeak<br>Udala</td></tr>
<tr><td>Garrantzia</td></tr>
<tr><td>Handia</td></tr>
</table>

<table>
<tr><th>Ekintza</th><th>Estrategia</th></tr>
<tr><td rowspan="7">1.1.3.2. Familia barruan euskararen erabilera bultzatzeko egitasmo zehatzak martxan jarri.<br><br>➡ Gurasoetako bat edo biak euskaldunak dituzten familientzako ekitaldi finkoak (programa finkoa) antolatu (hilean behin, bi hilean behin…) euren hizkuntza ohituretan eragiteko eta familia euskaldunen arteko harremanak sendotzeko helburu argiarekin. Ekimenak horretara bideratuta egon behar dute.<br><br>➡ Gurasolagun.</td><td>Ekitaldiak antolatu</td></tr>
<tr><td>Eraginpekoak</td></tr>
<tr><td>Guraso (bat ala biak) euskaldunak dituzten familiak<br>Euskara ikasten ari diren gurasoak</td></tr>
<tr><td>Arduradunak</td></tr>
<tr><td>AEK<br>Udala<br>Guraso elkarteak</td></tr>
<tr><td>Garrantzia</td></tr>
<tr><td>Handia</td></tr>
</table>

## 2. Euskalduntzea-prestakuntza

| Ahulgunea | Proposamenak |
|---|---|
| • Euskaldun zaharrak falta dira Berbalagunen.<br>• Euskararen kalitatea ez da ona.<br>• Euskalkiaren galera.<br>• Euskara ikasi, erabili ez.<br>• Euskaldun sentimendurik ez. | • Berbalagun indartu.<br>• Lider euskaldunak. |
| Helburua (IRATI) | |
| • **Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean.** | |
| Helburu zehatzak | |
| • Euskaldunei euren erantzukizunaz jabe daitezen mezuak zabaltzea. ■<br>• Berbalagun indartzea. ■<br>• Tokian tokiko euskalki eta euskararen ezaugarriak transmititzea. ■ | |

<table>
<tr><th rowspan="1">Ekintza</th><th>Estrategia</th></tr>
<tr><td rowspan="7">2.1.3.1.<br><br>Euskara ikasteko diru-laguntzak eskaini baldintza batzuk betetzearen truke: klasera joateko edota autoikaskuntza bidez ikasteko.<br><br>➧ Diru-laguntzak eman elorriarrei euskara ikasteagatik.<br>➧ Diru-laguntzen berri eman biztanleei euskara ikastera animatu daitezen.</td><td>Laguntza ekonomikoa eskaini</td></tr>
<tr><td>Eraginpekoak</td></tr>
<tr><td>Euskara ikasleak</td></tr>
<tr><td>Arduradunak</td></tr>
<tr><td>Udala</td></tr>
<tr><td>Garrantzia</td></tr>
<tr><td>Ertaina</td></tr>
</table>

<table>
<tr><th>Ekintza</th><th>Estrategia</th></tr>
<tr><td rowspan="7">2.1.4.1.<br><br>"Mintzalagun" proiektua jorratzeko taldeak sortu herrian (atzerritarrak eta adin guztietako euskaldun zaharrak eta berriak aintzat hartuta). Formula berriak aztertu: bazkari-laguna, kirol-laguna...<br><br>➧ Berbalagun egitasmoa indartu, eta euskaldun eta euskaltzaleen sarea sendotu.<br>➧ Berbalagun egitasmoa erreferente bihurtu: bertan parte hartzen dutenak ezagutarazi, etab.</td><td>Ikastaro bereziak eskaini.</td></tr>
<tr><td>Eraginpekoak</td></tr>
<tr><td>Euskara ikasleak/euskaldunak</td></tr>
<tr><td>Arduradunak</td></tr>
<tr><td>AEK<br>Udala</td></tr>
<tr><td>Garrantzia</td></tr>
<tr><td>Handia</td></tr>
</table>

<table>
<tr><th>Ekintza</th><th>Estrategia</th></tr>
<tr><td rowspan="7">2.1.1.1.<br>Herritarrengan modu erakargarrian eragin, dakiten euskara hori plazan ere erabiltzeko. Ekimenak definitu eta martxan jarri, herriko eta inguruko eragileekin elkarlanean: kartelak, tokian tokiko komunikabideetan mezuak, euskararen egunean agintari politikoen agerraldiak, pegatinak, egutegiak... Kanpainak sustatu. [Errenta Aitorpena euskaraz egiteko kanpaina eta gisakoak]<br>➡ “Geurien”en bitartez hainbat kanpaina herritarrei eta hitzarmeneko eragileekin batera: erosketak euskaraz, errenta aitorpena euskaraz, lehiaketak…</td><td>Ikastaro bereziak eskaini.</td></tr>
<tr><td>Eraginpekoak</td></tr>
<tr><td>Euskara ikasleak</td></tr>
<tr><td>Arduradunak</td></tr>
<tr><td>Udala</td></tr>
<tr><td>Garrantzia</td></tr>
<tr><td>Ertaina</td></tr>
</table>

<table>
<tr><th>Ekintza</th><th>Estrategia</th></tr>
<tr><td rowspan="7">2.1.1.6.<br>Euskara komunikatiboa sustatu eta zabaldu. Tokian tokiko euskalkiari lekua egin.<br>➡ Gazteei euskara erakargarri egin: gazte hizkera, hitanoa…</td><td>Ikastaro bereziak eskaini</td></tr>
<tr><td>Eraginpekoak</td></tr>
<tr><td>Gazteak</td></tr>
<tr><td>Arduradunak</td></tr>
<tr><td>AEK<br>Udala<br>Ikastetxeak</td></tr>
<tr><td>Garrantzia</td></tr>
<tr><td>Txikia</td></tr>
</table>

| Ekintza | Estrategia |
|---|---|
| 2.1.1.3.<br><br>Gazteengan eragin adin talde horietako erreferente diren pertsonengan oinarrituta.<br><br>➧ Gazteekin adostu sentsibilizazio eta lanketa berezia. (Gaztetxea?) | Ikastaro bereziak eskaini |
| | **Eraginpekoak** |
| | Gazteak |
| | **Arduradunak** |
| | Gaztetxea<br>Udala |
| | **Garrantzia** |
| | Handia |

| Ekintza | Estrategia |
|---|---|
| 2.1.2.1.<br><br>Eskualdeko euskaltegien gaineko gida osatu: zerbitzuak, ordutegiak, helbideak…herritarrei zabaldu.<br><br>➧ Mankomunitatearen bidez: matrikulazio-kanpaina. | Ikastaro bereziak eskaini |
| | **Eraginpekoak** |
| | Herritar erdaldun eta partzialki euskaldunduak |
| | **Arduradunak** |
| | Mankomunitatea<br>Udala |
| | **Garrantzia** |
| | Ertaina |

## 3. Irakaskuntza

| Ahulgunea | Proposamenak |
| --- | --- |
| • Etorkinen seme-alabak ondo integratzen dira eta hizkuntza menderatzen dute, koxkortuta datozenean arazo gehiago.<br>• Gurasoen arteko erabilera eta haurren erabilera eskasa eskola-orduez kanpo. | • Haur etorkinentzako eskolaz kanpoko saioak, modu ludiko batean euskara ikasteko.<br>• Haur etorkinekin lan egiteko baliabideak.<br>• Lider euskaldunak.<br>• Guraso-lagun.<br>• Prestigioa landu.<br>• Identitatea ez > sedukzinoa landu behar da.<br>• Norbanakotik hasi behar da.<br>• Euskarazko harremanak sortzeko ekimen erakargarriak.<br>• Harremanak landu.<br>• Hezkuntzan aukerak aztertu: guraso euskaldunak dituzten haurren arteko harremanak indartu. |

**Helburua (IRATI)**

- **Eskolaz kanpoko prestakuntza jardueretan euskararen erabilera areagotu.**
- **Euskarazko ikastereduak sustatu.**

**Helburu zehatzak**

- Eskolekin batera guraso eta haurren artean euskararen erabilera sustatzeko proposamena landu.
- Haur etorkinen hizkuntza premiak aztertu eta haurren euskara komunikazio erreala garatzeko, osatzeko eta integrazioa errazteko baliabideak ezarri.
- Eskolaz kanpoko jarduerak euskararen erabilera sustatzeko baliabide bihurtu.

| Ekintza | Estrategia |
| --- | --- |
| 3.2.2.1. | Ekimenak antolatu |
| Hitzarmena sinatu ikastetxe, euskaltegi edota herriko akademiekin haur eta gazteei eskolako lanak egiten laguntzeko: etxeko lanen txokoa, interneten bidezko galdera-erantzunen txokoa, mintzamen saioak bazkal ostean, etorri berrientzako murgiltze saioak, material osagarria sortu... | **Eraginpekoak** |
| ➡ Haur etorkinei eskolaz kanpo hezkuntza edukietan laguntzeko taldea sortu. | Haur etorkinak |
| | **Arduradunak** |
| | Ikastetxeak<br>Udala |
| | **Garrantzia** |
| | Ertaina |

| Ekintza | Estrategia |
| --- | --- |
| 3.2.2.1. | Sentsibilizazioa |
| Hitzarmena sinatu eskolaz kanpoko prestakuntzan dihardutenekin (musika eskolak, hizkuntza eskolak, margo eskolak...), euskarazko eskaintza handitzeko. | **Eraginpekoak** |
| ➡ “Geurien”en bitartez: EKTn lanketa berezia egin euskararen inguruan. | EKT |
| ➡ Irakasle eta monitore eta begiraleekin lanketa berezia egin sentsibilizazio lanean duten erantzukizunaz jabetzeko (TELP modukoak). | **Arduradunak** |
| ➡ EKTrekin lanketa berezia egin: hitzarmengintza eta jarraipena, euskara sustatzeko lanetan eragile bihurtu. | Udala<br>Begiraleak<br>EKT |
| | **Garrantzia** |
| | Ertaina |

<table>
<tr><th>Ekintza</th><th>Estrategia</th></tr>
<tr><td rowspan="8">3.1.1.1.<br><br>DBH, Batxiller, Lanbide Heziketan sartzear dauden gazteengan eragin, euskarazko ereduetan ikasten jarraitzeak dakartzan abantailak azaltzeko: gutunak, smsak, hitzalditxoak... [Matrikulazio kanpainak, besteak beste]<br><br>➡ Zeurea Da aukera kanpaina: ikasketak euskaraz jarraitzeko.</td><td>Sentsibilizazioa</td></tr>
<tr><td>Eraginpekoak</td></tr>
<tr><td>DBHko ikasleak</td></tr>
<tr><td>Arduradunak</td></tr>
<tr><td>Udala<br>Ikastetxeak</td></tr>
<tr><td>Garrantzia</td></tr>
<tr><td>Txikia</td></tr>
</table>

## 5. Lan mundua

| Ahulgunea | Proposamenak |
|---|---|
| Ez dira identifikatu, lan-mahaia ez zelako osatu. | Geurien hitzarmenaren bidez landuko da. |

| Helburua (IRATI) |
|---|
| • **Merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera handitu.** |
| Helburu zehatzak |
| • Euskararen balio erantsia ikusaraztea. ■<br>• Establezimenduetako hizkuntza paisaian euskararen presentzia erabatekoa ziurtatzea. ■<br>• Salerosketak euskaraz egin daitezen bultzatzea. ■<br>• Euskara Ziurtagiriak hedatzea.<br>• Enpresen artean euskara planak zabaldu (Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren bitartez eta Behargintzaren bitartez egin diagnostikoa) |

| Ekintza | Estrategia |
|---|---|
| 5.2.3.2.<br><br>Laguntza tekniko eta ekonomikoa eskaini errotuluak aldatzeko (toldoetan, ibilgailuetan...), itzulpenak bideratzeko... [programa informatiko euskaldunak ezartzeko diru-laguntzak eskaintzea eta gisakoak]<br><br>➨ “Geurien” hitzarmenaren barruan dauden eragileei laguntza teknikoa eskaini.<br><br>➨ Udaletatik zerga merkatzea errotulazioa ele bietan jartzeagatik. | Laguntza teknikoa eskaini<br>**Eraginpekoak**<br>Merkatari, ostalari eta zerbitzu-establezimenduak<br>**Arduradunak**<br>Udala<br>**Garrantzia**<br>Handia |

| Ekintza | Estrategia |
|---|---|
| 5.2.3.4.<br><br>Saritu merkatari eta ostalarien ahalegina: udaleko webean eskegi...<br><br>➨ Sarien bitartez ahaleginak egiten dituzten establezimenduak saritu Euskararen Egunaren inguruan eta gainerako establezimenduei ikusarazi euskarak duen balioa. (zehar-lerroen lanketan) | Sentsibilizazioa<br>**Eraginpekoak**<br>Merkatari, ostalari eta zerbitzu-establezimenduak<br>**Arduradunak**<br>Aholku Batzordea<br>**Garrantzia**<br>Txikia |

<table>
<tr><th>Ekintza</th><th>Estrategia</th></tr>
<tr><td rowspan="7">5.2.2.3.<br><br>Negozioetako jabeei jakitera eman zer eta non aurki dezaketen euskarazko materiala: dokumentu ereduak, fakturak, menuak...<br><br>➡ Euskara eskaintzarik onena (Alkarbide) egitasmoa aurkeztu merkatariei.</td><td>Laguntza teknikoa eskaini</td></tr>
<tr><td>Eraginpekoak</td></tr>
<tr><td>Merkatari, ostalari eta zerbitzu-establezimenduak</td></tr>
<tr><td>Arduradunak</td></tr>
<tr><td>Udala</td></tr>
<tr><td>Garrantzia</td></tr>
<tr><td>Ertaina</td></tr>
</table>

## 6. Aisia

| Ahulgunea | Proposamenak |
|---|---|
| • 13-14 urteko gazteek erdarara jotzen dute<br>• Helduen eredua gaztelaniazkoa da<br>• Tabernetako hartu-emanak gazteleraz→harreman biziatuak | |
| Helburua (IRATI) | |
| • **Aisialdi eskaintzan euskararen erabilera handitu.** | |
| Helburu zehatzak | |
| • Aisialdia euskara sustatzaile bihurtu. | |

| Ekintza | Estrategia |
|---|---|
| 6.1.1.1. | Sentsibilizazioa |
| Hitzarmena sinatu aisialdi taldeekin, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko. | Eraginpekoak |
| ➧ "Geurien" hitzarmena. | Haur eta gazteak. |
| | Arduradunak |
| | Udala |
| | Garrantzia |
| | Txikia |

| Ekintza | Estrategia |
|---|---|
| 6.1.3.1. | Ekitaldian antolatu |
| Haurrentzako ekintzak antolatu: udako eskaintza (udaleku irekiak, udako ludoteka...); opor garaietakoa (tailerrak, informatika...); jolasak (herri-kirolak, jokoak...) ["Euskera agoan" programa, eta gisakoak]. | Eraginpekoak |
| ➧ Udalekuak. | Haur eta gazteak |
| | Arduradunak |
| | Udala |
| | Garrantzia |
| | Txikia |

| Ekintza | Estrategia |
|---|---|
| 6.1.3.4.<br>Etorri berrien integraziora bideratutako aisialdi programak bideratu.<br>➧ Ludotekarekin hitzarmena… | Ekitaldian antolatu |
| | Eraginpekoak |
| | Haur etorkinak |
| | Arduradunak |
| | Ikastetxeak<br>Udala |
| | Garrantzia |
| | Handia |

| Ekintza | Estrategia |
|---|---|
| 6.1.4.3.<br>Saritu euskararen erabilera kontuan hartu eta sustatzen duten aisialdi elkarteak.<br>➧ Euskararen sariak (prestigioa, lidergoa zehar-lerroa). | Laguntza ekonomikoa eta teknikoa |
| | Eraginpekoak |
| | Gazteak |
| | Arduradunak |
| | Aholku Batzordea |
| | Garrantzia |
| | Ertaina |

## 7. Kirola

| Ahulgunea | Proposamenak |
|---|---|
| • Entrenatzaileen ezagutza<br>• Nagusien taldeetako jokalarien hizkuntza-ohiturak (kalekoa islatzen da)<br>• Jendeak orokorrean kalean kirolari buruz gaztelaniaz egiten du | |
| Helburua (IRATI) | |
| • **Kirol eskaintzan euskararen erabilera handitu.** | |
| Helburu zehatzak | |
| • Udal kirol eskaintzan euskarazko eskaintza erabatekoa egin. ■<br>• Kirol taldeak euskararen inguruan sentsibilizatu, elkarte barruko erabilera handitzeko. ■ | |

| Ekintza | Estrategia |
|---|---|
| 7.1.1.1.<br>Hitzarmena sinatu herriko Klub eta kirol taldeekin, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko.<br>➡ "Geurien" hitzarmena. | Sentsibilizazioa |
| | Eraginpekoak |
| | Kirol elkarteak |
| | Arduradunak |
| | Udala<br>Kirol taldeak |
| | Garrantzia |
| | Ertaina |

| Ekintza | Estrategia |
|---|---|
| 7.1.3.5.<br>Herriko kiroldegietako helduentzako kirol ikastaroetan euskarazkoen eskaintza handitu.<br>➡ Euskarazko eskaintza nagusitu, ordutegirik erakargarrienetan bereziki. | Ekitaldian antolatu |
| | Eraginpekoak |
| | Helduak |
| | Arduradunak |
| | Kiroldegia kudeatzen duen enpresa |
| | Garrantzia |
| | Handia |

## 8. Kulturgintza

| Ahulgunea | Proposamenak |
|---|---|
| • Erantzuna ez da beti ona<br>• Aukera ematen denenean (ibilbideak, adibidez) erdarazkoak irabazi<br>• Nagusiek euskaraz ez ulertzeko beldurra<br>• Zenbait kultura taldeetako kide guztiak ez dira euskaldunak<br>• Herrian euskaraz bizi gura dugunontzako bilgunerik ez | • Herri mailako sentsibilizazioa landu.<br>• Elkarte barruko sentsibilizazio kanpainak.<br>• Euskararen Eguna: jaia, parrandak, lehiaketak.,.. |
| Helburua (IRATI) | |
| • **Kultur eskaintzan euskararen erabilera handitu.** | |
| Helburu zehatzak | |
| • Kalitatezko kultur eskaintza erakargarria egin euskaraz. ■ | |

| Ekintza | Estrategia |
|---|---|
| 8.1.1.1.<br>Herriko kultur elkarteekin hitzarmenak sinatu, haietan euskararen erabilera sustatzeko.<br>➡ "Geurien" hitzarmena | Sentsibilizazioa |
| | Eraginpekoak |
| | Kultur taldeak |
| | Arduradunak |
| | Arriola<br>Kultur taldeak<br>Udala |
| | Garrantzia |
| | Ertaina |

| Ekintza | Estrategia |
|---|---|
| 8.1.3.4., 8.1.3.5., 8.1.3.6.<br>Kalitatezko kultur emanaldiak antolatu: erakusketak, hitzaldiak, proiekzioak, zinema, kantak eta bestelako musika emanaldiak, dantzak, antzerkiak, bertso dramak...<br>8.1.3.7.<br>Euskarazko kultur zirkuituetan parte hartu.<br>➡ Ekitaldi erakargarriak antolatu. | Ekitaldiak antolatu |
| | Eraginpekoak |
| | Herritar oro |
| | Arduradunak |
| | Arriola<br>Kultur taldeak<br>Udala |
| | Garrantzia |
| | Handia |

<table>
<tr><th>Ekintza</th><th>Estrategia</th></tr>
<tr><td rowspan="7">8.1.3.62.<br><br>Euskararen aldeko eguna, asteburua.<br><br>➧ Euskara sustatzea beren-beregi helburu duten ekitaldiak antolatu: euskararen sentsibilizazioa landu eta erabilera areagotzeko.</td><td>Ekitaldiak antolatu</td></tr>
<tr><td>Eraginpekoak</td></tr>
<tr><td>Herritar oro</td></tr>
<tr><td>Arduradunak</td></tr>
<tr><td>Udala<br>Kultur elkarteak<br>Aholku Batzordea</td></tr>
<tr><td>Garrantzia</td></tr>
<tr><td>Handia</td></tr>
</table>

| Ahulgunea | Proposamenak |
|---|---|
| • Liburutegian ez da Berria irakurtzen. | |
| Helburua (IRATI) | |
| • **Euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitu.** | |
| Helburu zehatzak | |
| • Liburutegia euskarazko produktu eta materialen sustatzaile bihurtu. | |

| Ekintza | Estrategia |
|---|---|
| 8.3.2.5.<br><br>Urtean zehar euskaraz liburu gehien alokatu dituen pertsonentzako sariak antolatu.<br><br>➧ Euskararen eta euskararen erabileraren prestigiatzea landu sarien bidez (zehar-lerroa) | Ekitaldiak antolatu |
| | Eraginpekoak |
| | Herritar oro |
| | Arduradunak |
| | Liburutegia<br><br>Euskararen Aholku Batzordea |
| | Garrantzia |
| | Txikia |

<table>
<tr><th>Ekintza</th><th>Estrategia</th></tr>
<tr><td rowspan="7">8.3.1.2.<br>Euskal literaturako titulu nagusiak (irakurrienak, sarituak...) ezagutzera eman: udalerriko web orrian...<br>8.3.2.3.<br>Irakurketa tailerrak antolatu.<br>8.3.2.7.<br>Liburuaren eguna ospatu.<br>8.3.2.47.<br>Liburutegia euskarazko liburuz hornitu.<br>➡ Liburutegia dinamizatu, euskarazko sormen eta lanei Garrantzia emanez.<br>➡ Galtzagorrirekin batera ekitaldiak antolatu: bularretik mintzora bezalako egitasmoetan parte hartu.</td><td>Ekitaldiak antolatu</td></tr>
<tr><td>Eraginpekoak</td></tr>
<tr><td>Herritar oro</td></tr>
<tr><td>Arduradunak</td></tr>
<tr><td>Liburutegia</td></tr>
<tr><td>Garrantzia</td></tr>
<tr><td>Ertaina</td></tr>
</table>

| Ahulgunea | Proposamenak |
|---|---|
| Ez da helburu honekin lotutako ahulgunerik jaso. | |
| Helburua (IRATI) | |
| • **Tokian tokiko hizkera, toponimia, historia, ohiturak jaso eta hedatzea sustatu.** | |
| Helburu zehatzak | |
| • Bertako euskalkia gorde eta transmisioa bermatu. ■<br>• Euskalkiaren erabilera prestigiatu. ■ | |

| Ekintza | Estrategia |
|---|---|
| 8.4.3.1.<br>Tokian tokiko hizkera eta toponimia ondarea jaso, argitaratu eta hedatu (ahozkoa zein idatzizkoa): toponimia, inguruko azpieuskalkiaren ezaugarriak, bilakaera, haur eta gazteen ezagutza eta erabilerari buruzko azterlana...<br>8.4.2.2.<br>Gai horiei lotuta lehiaketak antolatu herriko haur eta gazteen artean.<br>8.4.1.4.<br>Tokian tokiko euskararen erabilera bultzatu.<br>➧ Elorrioko hizkera eta toponimia lana zabaldu.<br>➧ Prestigiatze lana egin. | Ekitaldiak antolatu<br>**Eraginpekoak**<br>Herritar oro<br>**Arduradunak**<br>Udala<br>Euskaltzaindia<br>**Garrantzia**<br>Ertaina |

| Ekintza | Estrategia |
|---|---|
| 8.4.1.15.<br>Kale neurketak egin.<br>➡ Euskararen Kale Neurketa egin tokatzen denean. | Ekitaldiak antolatu |
| | **Eraginpekoak** |
| | Herritar oro |
| | **Arduradunak** |
| | Udala |
| | **Garrantzia** |
| | Handia |

## 9. Komunikabideak

| Ahulgunea | Proposamenak |
|---|---|
| • Ordenagailuak, mugikorrak, euskarazko softwarea erabiltzeko ohiturarik ez<br>• Dagoen eskaintzaren berri ez daukagu, baina premiarik ere ez da nabaritzen<br>• Liburutegian Berria ez du inork irakurtzen. | |
| Helburua (IRATI) | |
| • **Herri edo eskualde mailan euskarazko komunikabideen garapena sustatu edota euskararen erabilera bultzatu egungo komunikabideetan.** | |
| Helburu zehatzak | |
| • Anboto berriemaile bihurtu.<br>• Euskarazko komunikabideen kontsumoa sustatu. | |

| Ekintza | Estrategia |
|---|---|
| 9.1.1.1.<br>Komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtu.<br>9.1.1.2.<br>Komunikabideetan herritarren eta, bereziki, gazteen partaidetza sustatu: emanaldietako sarrerak oparitu...<br>- Anbotoren bitartez.<br>- Berria harpidetzak eta kontsumoa sustatu.<br>- Gazteen artean euskal komunikabideen kontsumoa sustatu. | Ekimena antolatu.<br>**Eraginpekoak**<br>Komunikabideak<br>Herritar oro<br>**Arduradunak**<br>Udala<br>Kultur elkarteak<br>**Garrantzia**<br>Ertaina |

| Ekintza | Estrategia |
|---|---|
| 9.1.3.1.<br>Eskualdeko euskarazko komunikabideen hedapena diruz lagundu.<br>- Anbotori diru-laguntza. | Ekimena antolatu<br>**Eraginpekoak**<br>Euskarazko komunikabideak<br>**Arduradunak**<br>Udala<br>**Garrantzia**<br>Handia |

## 10. Teknologia berriak

| Ahulgunea | Proposamenak |
|---|---|
| • Ordenagailuak, mugikorrak, euskarazko softwarea erabiltzeko ohiturarik ez<br>• Dagoen eskaintzaren berri ez daukagu, baina premiarik ere ez da nabaritzen<br>• Liburutegian Berria ez du inork irakurtzen. | |
| Helburua (IRATI) | |
| • **Teknologia berrietan euskararen erabilera handitu.** | |
| Helburu zehatzak | |
| • Gazteen artean bereziki teknologia berrietan euskararen erabilera handitzea. ■<br>• Kultur eta kirol taldeetako webguneak euskaratu. ■ | |

| Ekintza | Estrategia |
|---|---|
| 10.1.3.1.<br>Teknologia berriak euskaraz erabiltzeko ikastaroak antolatu adin guztietarako.<br>➧ Ikastaroak antolatu. | Ekitaldiak eskaini |
| | **Eraginpekoak** |
| | Gazteak bereziki |
| | **Arduradunak** |
| | Udala |
| | **Garrantzia** |
| | Handia |

| Ekintza | Estrategia |
|---|---|
| 10.1.4.2.<br>Herritarrek sarean ezartzen duten informazioa euskaraz ere egon dadin laguntzak bideratu: testuak euskaraz emateko, zuzentzeko...<br>10.1.4.16.<br>Web-guneak euskaratu<br>➧ Geurien hitzarmengintzaren barruko ekimena: kultur eta kirol elkarteek webgunean euskaraz izan ditzaten laguntza teknikoa eskaini. | Laguntza teknikoa eskaini |
| | **Eraginpekoak** |
| | Kultur eta kirol taldeak |
| | **Arduradunak** |
| | Udala |
| | **Garrantzia** |
| | Handia |

<table>
<tr><td>Ekintza</td><td>Estrategia</td></tr>
<tr><td rowspan="9">10.1.3.6.<br><br>Sarea euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtu.<br><br>➡ Udal web-agenda behar bezala elikatu eta bere erabilera hedatu. Euskarazko ekimenei Garrantzia emanez. Elkarteekin elkarlanean, agenda osatu eta elikatu.</td><td>Laguntza teknikoa eskaini</td></tr>
<tr><td>Eraginpekoak</td></tr>
<tr><td>Herritar oro</td></tr>
<tr><td>Arduradunak</td></tr>
<tr><td>Udala<br><br>Kultur eta kirol elkarteak</td></tr>
<tr><td>Garrantzia</td></tr>
<tr><td>Ertaina</td></tr>
</table>

<table>
<tr><th colspan="2">ZEHARLERROAK</th></tr>
<tr><th>Ahulguneak</th><th>Proposamenak</th></tr>
<tr><td>
• Euskaldun kopuru handia izanagatik ere, erabilera oso txikia da.<br>
• Herri euskaldunaren itxura errealitatetik urrun dago.<br>
• Umerik ez, erdaraz.<br>
• Euskalduna izan arren, erdaraz nagusiki.<br>
• Erdaldunaren eskubideak lehenetsi familia hizkuntzan. Euskaldunaren eskubideak?<br>
• Gurasoen artean erdaraz (familia barruan, familia ezberdinen artean).<br>
• Inkoherentzia: euskalduna beti erdaraz.<br>
• Baliabide falta.<br>
• Guraso etorkinen lan-baldintzak.
</td><td>
• Lider euskaldunak.<br>
• Gurasolagun.<br>
• Prestigioa landu.<br>
• Prestigioa: zelan? Adb.: Zumaian arraun-taldearekin.<br>
• Erakundeak + kohesio soziala: herriko euskaldun komunitatea osatzeko ahalegina. Lehen Berriketan egoan.<br>
• TELP ikastaroak.<br>
• Identitatea ez > sedukzioa landu behar da.<br>
• Futbola euskaldundu.<br>
• Norbanakotik hasi behar da.<br>
• Euskarazko harremanak sortzeko ekimen erakargarriak.<br>
• Euskara taldea sortzea.
</td></tr>
<tr><th colspan="2">Helburu zehatzak</th></tr>
<tr><td colspan="2">
▪ Euskaltzaleen sarea eta egiturak sortzea.<br>
▪ Euskararen erabilera areagotzea esparru guztietan.<br>
▪ Herritarrak euskararen egoeraz sentsibilizatzea.<br>
▪ Euskaldun liderrak sortzea.<br>
▪ Euskarari prestigioa ematea.
</td></tr>
</table>

| Ekintza | Estrategia |
|---|---|
| Egiturak sortzea:<br>➧ Euskararen Aholku Batzordea sortzea udalean. Hainbat eragilez osatua. Euskaltzaletasunaren gune izan dadin eta lotura eta elkarlanerako topalekua. | Egiturak sortu |
| | Eraginpekoak |
| | Herritar oro |
| | Arduradunak |
| | Udala eta Aholku Batzordea |
| | Garrantzia |
| | handia |

| Ekintza | Estrategia |
|---|---|
| Liderrak sortu:<br>➧ Sariak eta aitortzak: euskararen erabileran urratsak eta ahaleginak saritu. Herritarrak zein eragile, merkatari eta abar.<br>➧ Eragile estrategikoak identifikatu (Gaztetxea, gurasoak, EKT…) eta sentsibilizazio lanketa berezia egin. | Lidergoa indartzea |
| | Eraginpekoak |
| | Herritar oro |
| | Arduradunak |
| | Udala eta Aholku Batzordea |
| | Garrantzia |
| | handia |

| Ekintza | Estrategia |
|---|---|
| Euskararen aldeko mezuak zabaldu, egoera ikusarazi eta erabilera sustatu:<br>- Euskararen inguruko ekitaldi erakargarriak antolatu: euskara gai, ardatz eta erabilera sustatzea helburu dutenak (triki-poteo, bertso-afari, gaztaina erre, kantaldiak, marijesiak…)<br>- TELP ikastaroak, motibazio ikastaroak…<br>- Geurien hitzarmena indartu eta hitzarmenaren bidez eragile estrategikoei jarraipena egin. | Ekitaldiak antolatu<br>**Eraginpekoak**<br>Herritar oro<br>**Arduradunak**<br>Udala eta Aholku Batzordea<br>**Garrantzia**<br>handia |